

2.1 ACTUALIZACIÓN DE LOS ORDENADORES
2.1 ORDENAGAILUAK EGUNERATZEA



¿POR QUÉ ACTUALIZAR NUESTROS ORDENADORES? ZERGATIK EGUNERATU GURE ORDENAGAILUAK?

Con el paso de los años nos vemos en la necesidad de actualizar nuestros ordenadores, ya que de otra manera no podríamos conectar a éstos ningún "periférico" actual o no podríamos instalar ningún programa de gestión actual. Esto se debe en gran parte al diseño en el que se realizan los mismos, los ordenadores se ven en la necesidad de disponer de más capacidad para poder mover las nuevas aplicaciones.

La empresa ALP se formó hace 5 años con la intención de gestionar todos los siniestros de una aseguradora. Para ello se adecuó una lonja y se adquirieron dos ordenadores junto con una impresora y un Fax, pues la empresa era consciente de las ventajas que proporcionarían las tecnologías en el trabajo del día a día.

Con el paso de los años, se ha ido ampliando el negocio y en estos momentos se cuenta con cuatro profesionales. En la actualidad y tras comprobar la ventaja que supone la utilización de diferentes tecnologías en el negocio, se decide realizar alguna inversión más. Viendo las necesidades se decide comprar una cámara digital que le facilite la manipulación y la gestión de las fotografías que se realizan en los siniestros y poder así ahorrar en el revelado de las fotos y disponer de más espacio al no necesitar más que un ordenador para archivar todas esas fotos.

Por otro lado se adquiere una Impresora de color, con el objeto de poder imprimir todo tipo de documentos y cartas con su logotipo.

Otra de las mejoras es la utilización del correo electrónico. De esta manera la velocidad de comunicación con la clientela y

Urteak igaro ahala, ordenagailuak eguneratzeko beharra ikusten dugu. Izan ere, hori egingo ez bagenu, ezin izango genituzke ordenagailuak egungo "periferikoekin" konektatu, edota ezingo genuke egungo kudeaketa-programarik instalatu. Horren arrazoia, neurri handi batean, horiek egiteko erabiltzen den diseinua da, ordenagailuek ahalmen handiagoa behar baitute aplikazio berriak mugitu ahal izateko.

ALP enpresa duela 5 urte sortua da, aseguru-etxe baten ezbehar guztiak kudeatzeko. Horretarako, lonja bat egokitu zuten, eta bi ordenagailu, inprimagailu bat eta fax bat erosi zituzten, enpresa jabetuta baitzegoen teknologia berriek eguneroko lanean ekarriko zituzten abantailak.

Urtez urte negozioa zabaltzen joan da eta une honetan lau profesional dituzte. Gaur egun, negozioan teknologia desberdinak dakarren onura egiaztatu ondoren, inbertsio gehiago egitea erabaki dute. Beharrak ikusita, kamera digital bat erosi dute, ezbeharretan egiten diren argazkien manipulazioa eta kudeaketa errazteko eta, horrela, argazkiak errebelatzeko garaian dirua aurrezteko. Gainera, leku gehiago izango dute erabilgarri, argazki horiek guztiak artxibatzeke ordenagailu bat besterik ez baita behar.

Bestalde, koloretako inprimagailua ere erosi dute, mota orotako dokumentuak eta gutunak euren logotipoarekin inprimatu ahal izateko.

Beste hobekuntza bat posta elektronikoa erabiltzea da. Horrela, bezeroekin eta enpresa aseguratzailleekin harremanetan jartzeko abiadura bizkortu egiten da. Aipatutako hobekuntzei esker, enpresa aseguratzailleari aurrekontuak eta ezbe-

las empresas aseguradoras se agiliza. Con estas mejoras se podrá ahorrar tiempo en enviar por correo ordinario los presupuestos y los partes de los siniestros a la empresa aseguradora.

La Directora de la empresa ALP dispone de conocimientos informáticos, pero no conoce las herramientas que necesita para llevar a cabo sus propósitos de mejora, por lo que se dirige a un centro informático para que le hagan un estudio de sus necesidades. Una vez realizado el estudio de los ordenadores y los recursos y limitaciones, le recomiendan realizar una serie de mejoras en el equipamiento informático, ya que éstos tienen 5 años y no ofrecen recursos suficientes para la instalación de periféricos.

Uno de los problemas que podemos encontrar habitualmente a la hora de adquirir nuevos equipos informáticos, son los recursos de los ordenadores que disponemos. En el caso de la empresa ALP, podemos comprobar que los ordenadores ya están un poco obsoletos y tienen limitaciones, por lo que es necesaria la adquisición de una serie de componentes que permitan instalar los nuevos periféricos (ficha 1.3.). Estos componentes permiten la ampliación de la memoria y del Disco Duro; y la actualización del propio sistema operativo, ya que disponen de Windows 95 y 98. En estos momentos en la empresa ALP, en muchos de los periféricos no existen ficheros acordes a todos los sistemas y no se pueden instalar los mismos.

Teniendo en cuenta el caso de la empresa ALP, debemos de ser conscientes de que el equipamiento informático necesita una revisión y actualización constante para adecuarse a las necesidades y demandas de cada momento, y que las tecnologías ofrecen.

harren parteak ohiko postaz bidaltzeko denbora irabazi ahal izango dute.

ALP enpresako zuzendariak baditu ezagutza informatikoak, baina hobekuntza-helburuak gauzatu ahal izateko beharrezko tresnak ez ditu ezagutzen. Horregatik, zentro informatiko batera zuzendu da, dituen beharren diagnostikoa egin diezaioten. Ordenagailuei eta baliabide eta mugei buruzko azterlana egin ondoren, ekipamendu informatikoan zenbait hobekuntza egitea gomendatu diote, ordenagailu horiek 5 urte dituztelako eta periferikoak instalatzeko behar adinako baliabiderik ez dutelako.

Ekipo informatiko berriak eskuratzean topatu ohi dugun arazoetako bat erosten ditugun ordenagailuen baliabideak dira. ALP enpresaren kasuan, ordenagailuak zertxobait zaharkituta eta mugatuta daudela eta ikusten dugu. Beraz, periferiko berriak instalatzeko bidea emango duten zenbait osagai eskuratzea beharrezkoa da (1.3 fitxa). Osagai horiek memoria eta disko gogorra zabaltzeko eta sistema eragilea eguneratzeko aukera ematen dute (Windows 95 eta 98 daukate). Une honetan, ALP enpresaren periferiko askok ez dute sistema guztiekin bateragarriak izango diren fitxategirik, eta horiek ezin dira instalatu.

ALP enpresaren kasua kontuan izanda, jabetu behar dugu ekipamendu informatikoa etengabe berrikusi eta eguneratu behar dela, teknologiek eskaintzen dituzten baliabideen bitartez une bakoitzaren beharrei eta eskakizunei egokitzeko.

La actualización de los ordenadores es un requisito necesario a la hora de poder instalar cualquier periférico o aplicación actual, ya que de lo contrario no podrían ser capaces de utilizar todas estas herramientas, dificultando el manejo del ordenador y bloqueándose. Esto se debe a la limitación de recursos del propio ordenador ante las nuevas herramientas que se utilizan, ya que están son mucho más graficas y por consecuente más pesadas, teniendo que disponer de más capacidad y recursos informáticos para su utilización y mantenimiento.

Ordenagailuak eguneratzea ezinbesteko baldintza da edozein periferiko edo aplikazio berri instalatzeko; bestela, ez liriteke gai izango tresna horiek guztiak erabiltzeko, eta ordenagailuaren erabilera oztopatu eta hura blokeatuko litzateke. Horren arrazoia ordenagailuaren beraren baliabide mugatuak dira, erabiltzen diren tresna berrien aurrean. Izan ere, tresna horiek askoz ere grafikoagoak dira eta, ondorioz, astunagoak; eta ahalmen eta baliabide informatiko handiagoak behar dituzte erabili eta mantendu ahal izateko.